

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure proiektua aurrera eramateko, hainbat baliabide funtsezko behar dira, hauek baitira enpresari bere balio-proposamena garatzea, bezeroengana iristea eta diru-sarrerak sortzea ahalbidetzen dioten elementuak. Baliabide hauek mota desberdinetan banatzen dira: fisikoak, intelektualak, giza baliabideak eta finantza-baliabideak.

Lehenik eta behin, baliabide fisikoak aipatu behar dira. Gure kasuan, funtsezkoak dira aluminiozko pajitak fabrikatzeko behar diren materialak, hau da, aluminioa bera eta barrualderako harritzko artilea. Horrez gain, ekoizpen prozesurako oinarritzko tresnak behar dira, hala nola muntaketa egiteko makinaria sinplea edo lanerako espazio bat. Era berean, produktuak biltegitratzeko eta bidaltzeko ontziratze-materiala ere baliabide fisiko garrantzitsua da.

Baliabide intelektualei dagokienez, produktuaren diseinua eta ideia bera dira baliabide nagusietakoak. Pajitaren funtzionamenduaren inguruko ezagutza teknikoa, isolamendu termikoari buruzko oinarritzko kontzeptuak eta diseinu berritzailea baliabide ukiezinak dira, baina balio handia dute. Horrez gain, markaren izena eta irudia ere baliabide intelektual gisa kontsidera daitezke.

Giza baliabideak ere ezinbestekoak dira proiektuan. Taldeko kideen lanak proiektuaren arlo desberdinak estaltzen ditu: batek diseinuz eta produktuaren garapenaz arduratzen da, beste batek komunikazioa eta sare sozialak kudeatzen ditu, eta beste batek salmentak eta antolaketa lanak. Taldearen inplikazioa eta motibazioa funtsezkoak dira, nahiz eta hasieran esperientzia handirik ez izan.

Azkenik, finantza-baliabideak behar dira hasierako inbertsioa egiteko. Hasiera batean, baliabide hauek taldekideen aurrezkietatik etorriko lirateke, batez ere materialak erosteko, lehen prototipoak egiteko eta komunikazio minimo bat abian jartzeko. Inbertsio hau zuhurtziaz kudeatuko litzateke, arrisku handiak saihestuz.

Ondorioz, baliabide ukigarri eta ukiezin hauek ondo definituta egotea funtsezkoa da proiektuak arrakasta izan dezan. Baliabide bakoitzak bere rola dauka, eta guztien arteko konbinazioak egiten du posible gure produktua merkatura eramatea.